



AURKEZPENA

1.1.- TESTUINGURUA

Guraso.com egitasmoa bizi dugun garaiotako ondorio zuzena da: amatasun eta aitatasuna egungo gure gizarte berdina honetara ekartzeko saioa, askotarikoak baitira guraso berriek topatuko dituzten arazoak seme-alaben hazkuntzan ustezko xamurtasunaren ordeztasuna barra-barra dabilen gizarte honetan : haurdunaldi eta erditze zailak, haurtzaindegiak gainezka, lana eta gurasotasuna ezin eramatea, heziketaren joera berritzaileak, bikote banaketaren alternatiba betiere mingarria, guraso adinduxeak ugaritzea, sexu-bazterketa sentitzea,...

Gaurko gurasoak -gurasogaiak batez ere- egarri dira informazio berezituaz elika ditzagun.

1.2.- INFORMAZIOA HELDULEKU, GOIENA

Gaur egun, konplexua izaten da ia beti guraso berrien zeregina zein den zehaztea. Aldaketa handiak gertatzen ari dira familia osatzeko orduan. Gurasoek heldulekuak behar dituzte, gizarte post-moderno eta berdina honetako eredu berriak jarri behar zaizkie: foroa zabaltzea, esperientziak trukatu, informazio zehatza eta berezitu eman eta hartu,...

Zalantzarik gabe, gurasoentzako euskarazko informazio web gunea falta da, non gurasoak subjektu izango diren, beren txokoa izango duten, beren gauzez hitz egingo duten. Azken finean, web gunearen erroka familia kontzeptua gaur eguneko begiekin ikusarazi eta hedatzea izango da.

1.3.- TRANSMISIOAN ERAGIN

Familia bidezko transmisioan eragiteko asko dira egiten diren saioak, eta ez da txarto etorriko ditugun bitartekoak eskuragarri jartzea. Eredu zaharrak eta berriak ditugula aitatu dugunez, hizkuntzaren transmisioa zelan ematen den ikustea erakusleho polita izan daiteke web gunea.

Bestetik, euskara biziberritzeko gaurko indargune guztiak umeei zuzenduta egon arren, agian, garaia izango da gurasoek gure eginkizunak eta ardurak hartzeko: gurasoentzako eskolak, berba lagun proiektuak, hiztegi moldatuak, euskaldunen sareak, eta abar.

1.4.- ALTERNATIBAK ESKAINI, TXATXILIPURDI

Hezur eta haragizko gurasoek, webgunearen birtualtasunetik honantzago, hamaika beharrian errutinarioetan erdi itota ibiltzen dira sarri: astialdi sormentsua erabiltzea, asteburuetakoa irteerak, kanpalekuak, jai puntualak, ... Alternatibak ez dira berez-berez etortzen, akuluaren beharra egoten da. Antolamendua lagungarri izaten da horrelakoetan: astialdia egoki erabiltzea, dinamika berriak ume zein gurasoentzat, ...



Horiek horrela, Txatxilipurdirentzat Arrasaten zein beste edozein talderentzat Euskal Herrian ondo etorria izango delakoan gaude hazkuntzan eta transmisioan gurasoei dinamika berriak plazaratu eta aplikatzea.

Txatxilipurdi Elkartearen xede nagusia euskararen erabilera areagotzea den heinean; hau horrela izan dadin, bitartekoak eskaintzea ezinbestekoa egiten zaigu.

Gaur egun teknologia berriek duten garrantziaz oharturik eta Txus Arrieta Barinagarrementeriak aurkeztutako proposamenareki kasu eginez, Guraso.com web gunea martxan ipintzeko aukera aztertu genuen iraila bukaera-urria aldera. Hastapenetako azterketa honetan; Arrasateko Udaleko Euskara teknikaria, Goiena eta Txatxilipurdi aritu ziren.

Gurasoei zuzendutako euskarazko web gunerik ez zegoela kontutan harturik, proiektu interesgarria iruditu zitzaigun; praktikara eramateko modukoa, gurasoentzako baliagarria, atal eta eduki interesgarriekin, euskara hutsean,...

Web gune honekin; gurasoentzako baliagarria izan daitekeen tresna bat eskaini nahi dugu. Gaur egun pil-pilean dauden zenbait gairi buruzko informazioa eta artikulak ezberdinak bildu eta proiektuaren erabiltzaileen esku utziz; kezka edo zalantza ezberdinak kontrastatu eta argitzeko saiakera eginez.

PROPOSAMEN TEORIKOTIK, PRAKTIKARA

Lehen aipatu bezala; hasierako proposamena aztertu eta gero, proiektua errealitate bilakatzeari ekin genion.

Hasteko; web gunearen domeinuarekin sortutako hainbat kontu argitu eta lan-taldeko partaideen funtzioak zehazten aritu ginen.

Alde batetik; eduki-bilketa eta kolaborazioen koordinazioa egongo litzateke (Txatxilipurdiren esku), eta bestetik; albisteen eguneratzea eta arlo teknikoari lotutako kudeaketa (Goienaren esku).

Kudeaketa lan-taldearen funtzioak zehazturik; eduki bilketa eta web gunearen diseinuari ekin zitzaion. Diseinu lan honen baitan, hainbat aspektu hartu behar izan dira kontutan; hala nola, web gunearen diseinu grafikoa, egitura, behar legalak,...

Hona jarraian, aspektu bakoitzaren nondik-norakoak:

2.1.- PROIEKTUAREN EGITURA

Txusen hasierako proposamenari kasu eginez; web gunea bi ataletan banatzea pentsatu genuen (atal finkoa eta atal dinamikoa).

Web guneak azaltzen duen egitura, hurrengo hau izango litzateke:



SARRERA

Atariari buruzko azalpena. Web gunearen inguruko aipamenak; proiektuaren jatorria, zergatiak, helburuak,... azaltzen dira bertan.

Aldi berean; web guneak barnebiltzen dituen atal ezberdinak azaltzen dira (kolaborazioak, guraso berriak, seme-alabak, guraso eskola, aisialdia, beliabideak, albisteak, ...).

ATAL FINKOAK

GURASO BERRIAK

- Haurdunaldia
- Erditzea
- Haurdunaldi ostekoa
- 1. urtea
- Adopzioa
- Dirulaguntzak

SEME-ALABAK (beste ataletan aurki daitekeen informazioa; adin tarteka sailkaturik aurki daiteke bertan).

- 2-3 urte
- 3-6 urte
- 6-12 urte
- 12-16 urte

GURASO ESKOLA (gai ezberdinen inguruko informazioa aurki daiteke atal honetan. Zenbait azpi-atalez osatua dago, interesgarria suerta daitekeen informazioaren bilaketa errazteko asmoarekin).

- Heziketa
 - Hezkuntza (formala, ez-formala, hezkuntza premia bereziak,...)
 - Pedagogoak
 - Hezitzaileak
- Osasuna
 - Medikuak
 - Pediatrak
 - Psikologoak
 - Logopedia
 - Elikadura



- Prebentzio gaiak
 - Drogomenpekotasuna
 - Kale arriskuak
 - Teknologia berriak

- Aspektu legalak
 - Abokatuak
 - Gizarte zerbitzuetako teknikaria
 - Lan-utzialdia

- Familia koskak (famiarekin zerikusia duten gaiak modu sakonean aztertzeke aukera eskaintzen du).
- Hezkidetza
- Kulturartekotasuna
- Sexualitatea

AISIALDIA (asialdi tarterako baliagarria izan daitekeen materiala eskuragarri izango dugu atal honetan).

- Jolasak
- Familientzako planak
- Zorion agurrak
- Argazkiak

GURASOENTZAKO BALIABIDEAK

- Izenen zerrenda
- Hiztegiak
- Ume hizkera
- Deskargatzeko materiala: ipuinak, DVDak, Abestiak,...
(Deskargatzeko aukera + Gomendioak)

HARREMANETARAKO (Atal honen helburua, proiektuaren erabiltzaileen eta kudeatzaileen arteko harremana erraztea izango litzateke).

- Formulario bidez
- Datuak: telefonoa, helbidea,...

ATAL DINAMIKOAK

ALBISTEGIA

- Gurasoentzako informazio interesgarria (astean hiru albiste berri sartuko dira).

AGENDA (erabiltzaileek deialdiak bidaltzeko aukera dute)

- Txatxilipurdik antolatutako ekintzen deialdiak
- Arrasate mailan antolatzen diren ekintzen deialdiak
- Eskualde mailan antolatzen diren ekintzen deialdiak
- Euskal Herrian antolatzen diren ekintzen deialdiak



KOLABORATZAILEAREN TXOKOA

Atal honetan, kolaborazio artikuluen bidez, gai ezberdinen inguruko lanketa egiten da. Asteroko maiztasunarekin artikulua berriak argitaratzen dira eta web gunearen erabiltzaileek, gaiari buruzko kezka edota komentarioak azaltzeko aukera dute, eztabaida-foro antzeko batean.

Hauek dira Guraso.com egitasmoa posible egiten duten kolaboratzaileak:

1.- Psikologia	Itziar Bartolome
2.- Aisialdia	Maite San Vicente
3.- Pedagogia	Nerea Agirre
4.- Prebentzioa	Maite Aizpiri
5.- Elikadura	Amaia Diaz de Monasterioguren
6.- Aspektu legalak	Onintze Guridi
7.- Amatasuna	Lide Azkue
8.- Sexualitatea	Mirari Arando
9.- Aitatasuna	Iñaki Kasares
10. Psikomotrizitatea	Janire Jaio eta Maider Arrizabalaga
11. Gazteria	Blanka Jauregi
12. Euskara	Irati Pagoaga
13. Teknologia berriak	Patxi Gaztelumendi
14. Literatura	Asun Agiriano

Hauetaz gain, gai berriak lantzeko asmoa duten kolaboratzaile berrien sarrera aurreikusten dugu datozen asteotan.

AURRERA BEGIRA

3.1.- ETENGABEKO BERRIKUNTZA

Behin webgunea martxan ipini dugula, aurrera begirako lanean murgildurik; elikatze lan handia dagoela esan daiteke.

Beraz, zenbait atal edukiz betetzeko apustua eginda, hau gauzatzeko pausuak eman beharko ditugu. Hauek dira landu beharreko atalak:

- Atal finkoetako azpiatalak elikatzen jarraitu (modu etengabea)
- Baliabideak (deskargatzeko materiala eskegi, hiztegi gehiago sartu, momentuan eskuragarri egongo den materiala txertatu,...).
- Aisialdia: Familientzako planak proposatu (modu etengabea), jolasak, kantak,...
- Albistegiaren etengabeko eguneratzea
- Kolaboratzaileen txokoa sendotu.



3.2.- ERRONKA: ILDO BERRIEN GARATZEA

Alde batetik kudeatzaileen eta erabiltzaileen arteko elkarrekintza sustatzea ezinbestekoa egiten da; beraz, hori lortze bidean bitarteko ezberdinak eskaini beharko dira. Horretarako asteko kolaborazio gaia, modu sakonago batean landu behako litzateke, zerikusia duten artikulua, albiste eta dokumentu ezberdinak argitaratuz.

Elkarlana ere, indartu beharreko ildoa dela deritzogu. Nahiz eta Arrasateko Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta Txatxilipurdi aisialdi eta euskara elkarteak, Arrasateko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin (kolaboratzaileen ezinbesteko ekarpena ahaztu gabe), elkarlaean aritu; ezinbestekoa zaigu eremu eta eskualde ezberdinetara hedatzea. Ipar Euskal Herria, Nafarroa eta EAE aintzat hartuta, bertako eragile eta elkarte ezberdinekin harremana sendotzea oso garrantzitsua dela deritzogu. Bertako albisteak bildu, elkarte ezberdinen berri eman, ekintza ezberdinen deialdia luzatu, Euskal Herri guztiko zorion-agurren bilketa,...

Euskal Herri guztiko eskualdetako komunikabideengana jotzea ere aurreikusten dugu; aurretik aipatutakoa erraztasun handiagoarekin lortze bidean.

Aurretik aipatu dugun bezala, kolaboratzaileen txokoa sendotzearen aldeko hautua egingo dugu. Gai berriak lantzea dugu irizpide. Hurrengo gai hauek izango liratezke: pediatria, emaginak, musika, hezkidetzak, kulturartekotasuna eta kirola. Honetaz gain, gurasotasunari buruzko liburuak kapituluka argitaratzea ere hautu garrantzitsua izango litzateke. Itziar Alonso-Arbiolen “Zorionak: ama izango zara” liburuarekin hasiko ginateke.

Beste web gune batzuekin hartu-emana sustatzeko aukerak ere aztertu ditugu; hala-nola, Ahotsak.com web gunea. Elkarlan honek haurdunaldia, erditzea, amatasuna, kanta eta jolasak,... bezalako gaiak jorrazteko aukera eskaintzen luke, orain dela hamarnaka urtetako esperientzietatik abiatuta, orduko testigantzak jaso eta argitaratuz.

Gurasotasunaren gaiak, blog ezberdinak sortzeko parada ere eskaintzen digu. Interesa duen guraso orori, bertan idazteko aukera emango genioke.

Lan monografikoen atala abiarazteko aukerak ere aztergai ditugu. Euskal Herriko Unibertsitate eta Erakundeekin hitzarmena lortuz gero, material eta dokumentu ezberdinak sortzeko aukera izango genuke; ikerketak, erreportaiak, elkarrizketak,... guztiak gurasotasunaren gaiarekin lotuak baina hainbat ikuspegitik aztertuz (antropologia, soziologia, psikologia, pedagogia, erizaintza, medikuntza, kazetaritza, zuzenbidea...).

Zabalkundeari dagokionez; pausu batzuk emanak baditugu ere, asko dugu egiteke. Aurkezpen publikoa eta inguruko komunikabideekin egin beharreko lanketa burutua dugu. Euskal Herriko zenbait komunikabide ere egitasmoaren berri eman dute. Hala ere, ludoteka, ikastetxe eta guraso elkarte eta ahal den heinean Euskal Herriko tokiko komunikabide eta astekarietan zabalkunde egiteko ahaleginak egingo ditugu datozen asteotan.



Azken finean, arestian aipatu dugun bezala, Euskal Herri guztiko gurasoei zuzendutako web gunea izatea da egitasmoaren helburua, guztien arteko elkarrekintza sustatu eta ikuspegi berriak sortuz.